

# Doluzko poemak



© Xabier Galarreta

Seinaleak zeruan  
ikusten dira garbi  
Heriok badu denontzako  
soberazko asti.

♦♦♦

Nik ordea esan nahi diot  
ez izateko presarik,  
moldatuko naiz eder asko  
zerurako bakarrik;

♦♦♦

Ez denbora baino lehen  
prakerre hoi'tako'bat banintz;  
gauzak patxadaz egin nahi  
duenaren gisan baizik.

♦♦♦

Batzuk tematutzen dira  
heriotzari dei eginik  
noiz-eta ohartzen ez diran  
zeinen den alferrik;

♦♦♦

Herio etorriko baita  
nahi gabe ala guk nahirik  
eta eramango gaitu  
etorri bezain isilik.

♦♦♦

Une latza izango da  
denok zain daukagun hori  
damu eta erreguetarako  
bai horratx beranduegi.

♦♦♦

Bizitzen ta hiltzen  
kemenez dakienik  
adorez ta indarrez  
ederki beterik  
aurre'gingo diogu  
azken erasoari,  
ta erakutsiko dugu  
hemen gure herri  
maite honetan zelan  
dugun egiten adio  
betiko, inportau gabe  
zer dugun atzean utziko.

♦♦♦